

TREBAKUNTZA 2022-03: PUNTUAZIOA I

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. *Garai batean, administrazio munduan erabat euskaraz idatziak zeuden dokumentuak oso urriak ziren, zenbait akta eta ordenantza, udalen arteko gutun batzuk eta abar. Gaur egungo aukera ordea, askoz zabalagoa da.
2. * Hauxe izan zen zinegotziaren erantzuna: “gure alderdiak ez du mozio hau bere horretan onartuko”.
3. * Zuzendari jauna, Gutun honen bidez, lehengoan esandako...
4. * Bulegorako materiala erosi behar dugu: boligrafoak, orriak, grapagailuak
5. * Noiz etorriko da alkatea? Bihar goizean.

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

PUNTUA:

Puntuak esaldiaren azkena markatzen du. Pausa osoa adierazten du. Honako kasuetan erabiltzen da:

- **Zentzu osoa duen periodoaren bukaeran.** Paragrafoaren amaiera markatzen duenean, puntu eta aparte egiten da.

Ad.: Unibertsitateko administrazio-langileen artean euskara erabiltzen duten euskaldunek ere, askotan, ez dute inprimakiak ere euskaraz betetzeko ohiturarik.

Denok gaude ezjakin samar arlo honetan. Ez dago, beraz, argudio sakonen bila ibili beharrik esparru honetara erabilera hedatzeko premia larria dagoela justifikatzeko.

- **Laburduretan:** ezk., esk. eta abar. Baina ez kontzeptu, magnitude, unitateak eta abar adierazteko jartzen diren ikurretan (ikus laburduren fitxa): m, kg...

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

- **Zenbakien ondoren, "-garren"-en orde.**

Ad.: *Iturribide kaleko 6.ean dago Kultur Etxea.*

- **Etadura puntuan ondoren, ez idatzi punturik:**

Ad.: *Hauek dira gure diru-iturri nagusiak: Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Aldundia, enpresa pribatuak...*

BI PUNTUAK:

Bi puntuak ere pausaldi luzea adierazten dute. Honako kasuetan erabiltzen da, batik bat:

- **Ondorengoa aurrekoaren argibide edo adibide dela adierazteko.**

Ad.: *Bazkide berriei datuak eskatzen zaizkie aldizkaria jasotzeko: izen-abizenak, helbidea, NAN zenbakia...*

- **Norbaiten edo nonbaiteko hitzak bere horretan testura ekartzen direnean.** Kasu honetan, larriz idatzi behar da esaldiaren hasiera.

Ad.: *Honela dio araudiak: "Ikaslearen orde besterik ez du beste norbaitek egingo balu azterketa, ikasle hori ezgai izango litzateke asignatura ebaluatzean".*

- **Orduetan.**

Ad.: *1. mailako ikasleentzako ordutegi berria hauxe da: 08:15etik 14:15 arte.*

Beraz:

1. Garai batean, administrazio munduan erabat euskaraz idatziak zeuden dokumentuak oso urriak ziren; zenbait akta eta ordenantza, udalen arteko gutun batzuk eta abar. Gaur egungo aukera ordea, askoz zabalagoa da.
2. Hauxe izan zen zinegotziaren erantzuna: "Gure alderdiak ez du mozio hau bere horretan onartuko".
3. Zuzendari jauna:
Gutun honen bidez, lehengoan esandako...
4. Bulegorako materiala erosi behar dugu: boligrafoak, orriak, grapagailuak...

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

5. Noiz etorriko da alkatea? Bihar goizean.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699